



2021EKO EKAINAREN 25EKO OSASUNEKO MAHAI SEKTORIALAREN AKORDIOA

ACUERDO DE LA MESA SECTORIAL DE SANIDAD DE 25 DE JUNIO DE 2021

2021eko ekainaren 25ean urrutitik egindako bileran, Osakidetza eta SATSE eta SME sindikatuen ordezkariak, zeinek Osasuneko Mahai Sektorialean ordezkariak izan, Akordio hau adostu dute. Jarraian adierazten da akordioa hitzez hitz:

En sesión celebrada a distancia, siendo el día 25 de junio de 2021, la representación de Osakidetza-Servicio vasco de salud y las centrales sindicales SATSE y SME, con representación en la Mesa Sectorial de Sanidad, han adoptado el siguiente Acuerdo, cuyo texto a continuación se transcribe.

AKORDIOA / ACUERDO

Alderdi sinatzaileek adostasunez sinatzen dituzte Osakidetza aldi baterako kontratazioko zerrendak egiteko eta kudeatzeko Akordioa garatzeko Protokolo hauek: Oporraldietarako aldi baterako kontratazioen erreserben protokoloa; Asteburuetarako, jaiegunetarako eta premia egoeretarako kontratazioen protokoloa; Izendapen luzeen zerrendako izendapenak eskaintzeko telefono-deiak egiteko protokoloa, eta Izendapen laburren zerrendako izendapenak eskaintzeko telefono-deiak egiteko protokoloa. Horiek guztiak Osakidetza aldi baterako kontratazioaren web-orrian argitaratuko dira.

Suscribir de conformidad el texto acordado por las partes firmantes por el que regula los siguientes Protocolos en desarrollo del Acuerdo de elaboración y gestión de las listas de contratación temporal en Osakidetza-Servicio vasco de salud: Protocolo de Reservas de contratación temporal para periodos vacacionales, Protocolo de Contratación en fines de semanas, festivos, y situaciones urgentes, Protocolo de realización de llamadas telefónicas para la oferta de nombramientos de la lista de nombramientos largos y Protocolo de realización de llamadas telefónicas para la oferta de nombramientos de la lista de nombramientos cortos, que serán publicados en la página web de Contratación Temporal de Osakidetza.

Eta adierazitakoarekin ados, Akordio hau sinatzen dute aipatutako toki eta egunean.

Y en prueba de conformidad se firma el presente Acuerdo, en el lugar y fecha indicados.

**OSAKIDETZAREN IZENEAN
POR OSAKIDETZA**


Maria Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS


Sin./Fdo.: Maria Pilar Uriarte Brizuela
Giza Baliabideen zuzendaria
Directora de Recursos Humanos

**SINDIKATUEN ORDEZKARIAK
POR LA REPRESENTACION SINDICAL**

Sin./Fdo.: Jose Antonio de Leniz Aspiazu
Idazkari nagusia / Secretario General

SME

Sin./Fdo.: Mabel Arciniega Galan
Idazkari nagusia / Secretaria General



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Protokoloa.– Asteburuetarako, jaiegunetarako eta premiazko egoeretarako kontratazioak.

Aldi baterako kontratazioko zerrendak egin eta kudeatzekoari buruzko Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 14ko Erabakiaren lehen xedapen gehigarrian jasotakoa betetz, jarduketa-protokolo bat ezarri da asteburuetan, jaiegunetan edo beste aldi batzuetan kontratatzekeo premiaren aurrean, bete beharreko horiek hain premiazkoak eta berehalakoak izanik zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzetan kudeatu ezin dituztenerako.

Jarraitu beharreko protokoloa honako hau izango da:

Lehenengoa.– Asteburu eta jaiegunetarako kontratazioa.

Langileen Zuzendaritzako zerbitzu eskudunak lanerako prest dauden pertsonen zerrendak egingo ditu, dagokion kategoriako kontratazio-zerrenden hurrenkerari jarraituz (hizkuntza-eskakizuna duten adieraziko da zerrendan). Zerrenda horiek ostiraletan edo jai-bezperetan egingo dira, eta asteburuan edo dagokion jaiegunean operatibo dauden unitateen erdi-mailako arduradunei jakinaraziko zaizkie.

Lanpostuak premiaz bete behar izanez gero, arduradunak zerrendako pertsona bati deituko dio, hurrenkerari zorrotz jarraituz. Izendapen-eskaintza horri uko egiteak ez du penalizaziorik ekarriko, eta ez da beharrezkoa izango hura justifikatzea. Gero, arduradunak Langileen Zuzendaritzari jakinarazi beharko dizkio era horretan kontratatutako pertsonen izenak.

Gehienez hiru eguneko iraupena duten behin-behineko izendapenak bakarrik egin ahal izango dira era horretan. Salbuespen gisa, hiru egunetik gorako jaiegunak metatzen diren aldietan, bost egunera arte luzatu ahal izango da izendapena. Langileen Zuzendaritzako zerbitzu eskudunak kudeatuko du dagokion kontratazioa, asteburua eta jaiegunak igarota, sortutako premia izaeraren arabera.

Bigarrena.– Premiazko eta berehalako izendapenak.

Jarduera asistentzialaren etengabeko funtzionamendua bermatzeko pertsona bat kontratatzea premiazkoa bada eta Langileen Zuzendaritzak ezin badu kontratazioa kudeatu, dagokion arduradunak izango du pertsona bat aurkitzeko ardura. Egoera hori, funtsean, gaueko txandetan gerta daiteke, eta, salbuespen gisa, arratsaldeko txandan, Langileen Zuzendaritzak behar hori kudeatu ezin duenean. Langilea hautatzeko, aurreko asteburuan edo jai-bezperan prestatutako kontratazio-zerrenda ere erabiliko da. Zerrenda hori agortuta badago, dagokion kategoriako kontratazio-zerrendetan dagoen beste edozein pertsonari deituko zaio. Izendapen-eskaintza horri uko egiteak ez du penalizaziorik ekarriko, eta ez da beharrezkoa izango hura justifikatzea.

Gehienez egun bateko iraupena duten behin-behineko izendapenak bakarrik egin ahal izango dira era horretan. Langileen Zuzendaritzako zerbitzu eskudunak kudeatuko du dagokion kontratazioa, inguruabar horietan sortutako premiaren izaeraren arabera.

Amir
SDTSE



[Signature]



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Protocolo.- Contratación en fines de semana, festivos y situaciones urgentes.

En cumplimiento de la previsión contenida en la disposición adicional primera del Acuerdo de 14 de julio de 2021, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de elaboración y gestión de las listas de contratación temporal, se establece un protocolo de actuación ante la necesidad de contratación en fines de semana, festivos u otros períodos en los que la urgencia e inmediatez de la cobertura no permita la gestión de esa necesidad por parte de las Direcciones de Personal de las organizaciones de servicios.

El Protocolo que se debe seguir es el siguiente:

Primero.- Contratación en fines de semana y festivos.

El Servicio competente de la Dirección de Personal elaborará listas de personas disponibles siguiendo el orden de las listas de contratación de la categoría correspondiente, con indicación del perfil lingüístico. Estas listas se elaborarán los viernes o víspera de festivo y se comunicarán a los mandos intermedios responsables de las diferentes unidades operativas en fin de semana o festivo.

Ante una necesidad de cobertura urgente, el mando llamará a una persona de la lista que se le ha facilitado siguiendo rigurosamente el orden de la misma. El rechazo de esta oferta de nombramiento no supondrá penalización alguna ni será necesaria la justificación del mismo. Deberá comunicar a la Dirección de Personal los nombres de las personas contratadas de esta forma.

De esta manera únicamente podrán realizarse nombramientos eventuales con una duración máxima de tres días. Excepcionalmente, en periodos de acumulación de festivos superior a tres días, se podrá prolongar hasta cinco días. Será el Servicio competente de la Dirección de Personal el que, pasado el fin de semana y días festivos, atendiendo a la naturaleza de la necesidad surgida, gestione la contratación correspondiente.

Segundo.- Nombramientos urgentes e inmediatos.

Ante una situación en la que sea urgente la contratación de una persona para garantizar el funcionamiento permanente y continuado de la actividad asistencial y no sea posible la gestión de la contratación por parte de la Dirección de Personal, será el mando correspondiente quien se encargue de localizar a una persona. Esta situación puede darse, fundamentalmente, en los turnos de noche y, excepcionalmente, en el turno de tarde cuando no puede ser gestionada la cobertura por parte de la Dirección de Personal. Para su selección se utilizará igualmente la lista elaborada para la contratación en fin de semana o víspera de festivo inmediatamente anterior. Si esta lista estuviese agotada se llamará a cualquier otra persona que forme parte de las listas de contratación de la categoría correspondiente. El rechazo de esta oferta de nombramiento no supondrá penalización alguna ni será necesaria la justificación del mismo.

De esta manera únicamente podrán realizarse nombramientos eventuales con una duración máxima de un día. Será el Servicio competente de la Dirección de Personal quien, atendiendo a la naturaleza de la necesidad surgida en estas circunstancias, gestione la contratación correspondiente.

Mesa Sectorial 25 junio 2021

Aguirre
SDTSE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



Protokoloa.- Oporraldietarako aldi baterako kontratazioen erreserbak.

Aldi baterako kontratazioko zerrendak egin eta kudeatzeari buruzko Osakidetza Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 14ko Erabakiaren hirugarren xedapen gehigarrian jasotakoa betez, Aste Santuko, Gabonetako eta udako oporretan izendapenak egiteko prozedura ezarri da.

Jarraitu beharreko protokoloa honako hau izango da:

Lehenengoa.- Oporraldirako erreserbetan, maiatzaren 1etik aurrera soilik erreserbatu ahalko dira aldi baterako kontratazioko zerrendan daudenak oporraldiko lehen tartean hasten diren izendapenatarako (ekaina eta uztaila), eta uztailaren 1etik aurrera baino ez oporraldiko bigarren tartean hasten direnatarako (abuztua eta iraila). Aste Santuko eta Gabonetako oporraldiei eta 15 eguneko edo laburragoak diren izendapenei dagokienez, 10 egun naturaleko aurrerapenarekin baino ez.

Ondorio horietarako soilik, oporraldiak honako hauek direla ulertuko da:

- Aste Santuan: bi aste osorik: Aste Santuko astea eta hurrengoa (Pazko Astea).
- Gabonetan: abenduaren 6ko astetik urtarrilaren 6aren ondorengo igandera.
- Udan: ekainetik irailera.

Udako oporraldian eskainitako izendapenek 15 egun edo gutxiago irauten badute, izendapenaren lehen eguna baino 10 egun natural lehenago egingo da eskaintza, gehienez ere.

Bigarrena.- Aurreko atalean ezarritako moduan egindako erreserbei ezingo zaie modu baliozkoan uko egin, baldin eta ez bada Osakidetza Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 14ko Erabakian (aldi bateko kontratazioko zerrendak egin eta kudeatzeari buruzkoa) aurreikusitako uko egiteko arrazoiengatik.

Hirugarrena.- Izendapen bat erreserbatuta daukan pertsonari, kontratua oporraldian hasi arteko itxarote-aldian, izendapenak eskainiko zaizkio. Izendapen horiek erreserba egin duen zerbitzu-erakundeak edota beste erakunde batek egin ahalko ditu (izangaia lanerako prest badago erakunde horri dagozkion zerrendetan), baldin eta eskaintzen zaion kontratazio-aldiak iraupen jakin bat badu eta iraupen hori ez badator bat langileak erreserbatuta duen izendapen-aldiarekin.

A. L. L. 2
SATSE



[Handwritten signature]

Protocolo.- Reservas de contratación temporal para periodos vacacionales.

En cumplimiento de la previsión contenida en la disposición adicional tercera del Acuerdo de 14 de julio de 2021, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de elaboración y gestión de las listas de contratación, se establece un procedimiento para comprometer nombramientos para las vacaciones de Semana Santa, Navidad y verano.

El Protocolo que se debe seguir es el siguiente:

Primero.- En las reservas para el período vacacional sólo se podrán reservar personas de las listas de contratación temporal desde el 1 de mayo, para los nombramientos que comienzan en el primer tramo del periodo vacacional (meses de junio y julio) y desde el 1 de julio para los que comienzan en el segundo tramo del periodo vacacional (meses de agosto y septiembre) y 10 días naturales para el caso de Semana Santa y Navidad, y para nombramientos de duración igual o inferior a 15 días.

A estos únicos efectos se entenderá que los períodos vacacionales son los siguientes:

- Semana Santa: Dos semanas completas: la semana de Semana Santa y la siguiente semana (Semana de Pascua).
- Navidad: Desde la semana del 06 de diciembre hasta el domingo posterior al seis de enero.
- Verano: De junio a septiembre.

En el caso de que los nombramientos ofertados en el período vacacional de verano tengan una duración igual o inferior a quince días, se ofertarán con una antelación máxima de 10 días naturales al primer día del comienzo del nombramiento.

Segundo.- Las reservas realizadas en la forma prevista en el apartado anterior no pueden ser rechazadas válidamente si no es por las causas de renuncia reglamentariamente previstas en el Acuerdo de 14 de julio de 2021, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de elaboración y gestión de las listas de contratación temporal.

Tercero.- A la persona que haya sido reservada para un nombramiento se le ofertarán nombramientos durante el período de espera hasta el comienzo de su contratación en período vacacional, tanto por la OS que la hubiera reservado como por otra organización en cuyas listas esté disponible, siempre que el período de contratación que se le oferte tenga una duración determinada y ésta no coincida con el período del nombramiento para el que se encuentra reservada.

Mesa Sectorial.- 25 junio 2021



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



Protokoloa.- Telefono-deiak egitea izendapen luzeen zerrendako izendapenak eskaintzeko.

Aldi baterako kontratazioko zerrendak egiteari eta kudeatzeari buruzko Osakidetza Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren xx(e)ko Erabakiaren 24.1 artikuluan xedatutakoa betez, protokolo bat ezarri da izendapen luzeen zerrendako izendapen-eskaintzetarako telefono-deiak egiteko.

Erabaki horren 24. artikuluan zehazten denez, izendapen luzeen zerrendako izendapenen kudeaketa, modu lehenetsian, Osakidetza horretarako jarritako bitarteko telematikoak erabiliz egingo da, nahiz eta aukera egongo den eskaintzaren kudeaketa telefonoz ere egiteko. Horrexegatik da beharrezkoa izendapen luzeen zerrendako izendapen-eskaintzetarako telefono-deiak egiteko protokolo bat ezartzea.

Prozesua honako hau izango da:

1. Telefonoz deituko zaio zerrendan lanerako prest dagoen lehenengo pertsonari, eta une horretan dauden izendapen guztiak eskainiko zaizkio.
2. Pertsona horrek erantzuten badu, 2 orduko epea izango du kontratazio-eskaintza onartzeko edo baztertzeko.
3. Ez badu erantzuten, bigarren aldiz deituko zaio. Bi deiak hiru orduko tartea utzita egingo dira.
4. Bi telefono-deiei erantzuten ez badie, mezu bat bidaliko zaio eman duen helbide elektronikora.
5. Mezu elektronikoa bidali eta 24 ordura, interesduna ez bada harremanetan jarri Kontratazio Zerbitzuarekin, zerrendako hurrengoari deituko zaio.
6. Deiei eta mezu elektronikoari ere erantzuten ez badie, deitu zaion kategoria / lanpostu funtzional zehatzaren zerrendatik kanpo geratuko da, 2021eko uztailaren 14ko Erabakiaren 41. artikuluan ezarritako epeetarako. Horren berri idatziz emango zaio, penalizazioaren amaiera-data adierazita.

Ameriz
SATSE



[Signature]



Protocolo.- Realización de llamadas telefónicas para la oferta de nombramientos de la lista de nombramientos largos.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 24.1 del Acuerdo de 14 de julio de 2021, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de elaboración y gestión de las listas de contratación temporal, se establece un protocolo para la realización de llamadas telefónicas para las ofertas de nombramientos de lista de nombramientos largos.

En el artículo 24 del citado Acuerdo se determina que la gestión de los nombramientos de listas de nombramientos largos se realizará prioritariamente utilizando los medios telemáticos habilitados por Osakidetza a dicho fin, si bien deja abierta la posibilidad de que la gestión de la oferta pueda ser telefónica, por lo que se hace necesario establecer un protocolo para la realización de llamadas telefónicas para las ofertas de nombramientos de lista de nombramientos largos.

Este proceso se ajustará a lo siguiente:

1. Se llamará por teléfono a la primera persona disponible de la lista ofertando todos los nombramientos existentes en ese momento.
2. En el caso de que la persona responda a la llamada, dispondrá de un plazo de 2 horas para aceptar o rechazar la oferta de contratación.
3. Si no contesta se le llamará una segunda vez. Las dos llamadas se realizarán con una diferencia de dos horas.
4. Si no contesta a las dos llamadas telefónicas se le enviará un correo a la dirección de correo electrónico que haya facilitado.
5. Si transcurridas 24 horas desde el envío del correo electrónico la persona interesada no contactara con el Servicio de Contratación, se llamará a la siguiente de la lista.
6. De no existir contestación a las llamadas ni al correo electrónico será excluida de la lista de la categoría/puesto funcional concreto para la que se le está llamando, durante los plazos establecidos en el artículo 41 del Acuerdo de 14 de julio de 2021, Se comunicará esta circunstancia por escrito, señalando la fecha de finalización de la penalización.

Mesa Sectorial 25 junio 2021



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



Protokoloa.- Telefono-deiak egitea izendapen laburren zerrendako izendapenak eskaintzeko.

Aldi baterako kontratazioko zerrendak egiteari eta kudeatzeari buruzko Osakidetza Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren xx(e)ko Erabakiaren 25.1 artikuluan xedatutakoa betez, protokolo bat ezarri da izendapen laburren zerrendako izendapen-eskaintzetarako telefono-deiak egiteko.

Esandako Erabakiaren 25. artikuluan zehaztu da izendapenen eskaintzak telefonoz egingo direla, modu lehenetsian.

Prozesua honako hau izango da:

1. Telefonoz deituko zaio zerrendako lehenengo pertsonari, baldintzak betetzen baditu eta zerrendan lanerako prest badago, eta une horretan dauden izendapen guztiak eskainiko zaizkio.
2. Prest dagoen horrek erantzuten badu, berehala adierazi beharko du eskaintza onartzen duen ala ez, edo justifikatzeko arrazoiren bat alegatzen duen.
3. Erantzuten ez badu, bigarren aldiz deituko zaio, eta orduan ere ez badu erantzuten, hirugarren aldiz. Hiru dei horiek bi egunetan egingo dira. Egun berean egiten diren bi deiak bi orduko tarte utzita egingo dira.
4. Deiei ez erantzuteak ez du eragotziko kasuan kasuko kategoriako / lanpostu funtzionaleko zerrendako gainerako kideei izendapenak eskaintzen jarraitzea. Hiru saiakeretako batean interesdunak erantzuten badu, une horretan dauden izendapenak eskainiko zaizkio, halakorik badago. Hau da, ez du aukerarik izango aurreko deiak egin zaizkionean libre zeuden izendapenak hartzeko.
5. Deitu zaion kategorია / lanpostu funtzional zehatzaren zerrendatik kanpo geratuko da interesduna, 2021eko uztailaren 14ko Erabakiaren 41. artikuluan ezarritako epeetarako, baldin eta hiru kontratazio-eskaintzatan ezinezkoa izan bada berarekin kontaktuan jartzea. Horren berri idatziz emango zaio, penalizazioaren amaiera-data adierazita.

Aleu 12
SATSE



[Handwritten signature]



Protocolo.- Realización de llamadas telefónicas para la oferta de nombramientos de lista de nombramientos cortos.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 25.1 del Acuerdo de 14 de julio de 2021, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de elaboración y gestión de las listas de contratación temporal, se establece un protocolo para la realización de llamadas telefónicas para las ofertas de nombramientos de lista de nombramientos cortos.

En el artículo 25 del citado Acuerdo se determina que, preferentemente, el medio de comunicación para efectuar las ofertas de nombramientos será telefónico.

Este proceso se ajustará a lo siguiente:

1. Se llamará por teléfono a la primera persona que, cumpliendo los requisitos, esté disponible en la lista, ofertando todos los nombramientos existentes en ese momento.
2. En el caso de que la persona disponible conteste, deberá manifestar de forma inmediata si acepta la oferta, si no la acepta o si alega alguno de los motivos de justificación.
3. Si no contesta, se le llamará una segunda vez y si no contesta tampoco en esta ocasión, se le llamará una tercera vez. Estas tres llamadas se realizarán en dos días diferentes. Las dos llamadas que se realicen el mismo día se harán con una diferencia de dos horas.
4. El hecho de no contestar a cualquiera de las llamadas no impedirá que se continúen ofertando los nombramientos al resto de integrantes de las listas de la categoría/puesto funcional correspondiente. Si en alguno de los tres intentos la persona contesta, se le ofertarán los nombramientos existentes en ese momento si los hubiera, sin tener opción a los nombramientos disponibles en el momento de la realización de las llamadas anteriores.
5. Quedará excluido de la lista de la categoría/puesto funcional concreto para la que se le está llamando, durante los plazos establecidos en el artículo 41 del Acuerdo de 14 de julio de 2021, el personal que, con ocasión de tres ofertas de contratación distintas, haya sido intentado localizar infructuosamente. Se comunicará esta circunstancia por escrito, señalando la fecha de finalización de la penalización.

Amiz
SATSE

